

Ibañeta'ko mendietatik

Paulo Fermin Irigaray'k

Urkijo jaunaren gorasarreko zerbeit egiteko ez, othe nituen ezagutu behar jaun orrek irakatsi zigun Yoannes d'Etcheberry, Doihenart, Dechepare, Sauguis, Axularr, Garibay, Tartas eta ainbeste euskaldun jakintsunen euskar-lanak?

Baño zerbeit egin nahi aren omenez, etchetik urrun, paper eta libururik gabe, ezin baitiot goraintzi handi bat besterik igorri!

Laur-ogei urteko nere shaharrera gaztetu beharrez, biali ninduten mendi-tarteko errixka batera eta ene aidego baten baitan ostata-tu nintzen.

Nere aaidegoa-ren etchean bospasei urteetako behor bat gasho edo eri zaukaten; ogei egunetako pottoka eder baten ama; eritu orduko esnerik gabe gelditu zen. Azken igande goizean, etheko nagusia oyanera jua eta behorra itzalean zagola ikusi, iduritu zitzayon ongi zegoala. Hurrengo asteartean itzal lekuaren bazterrean zagon behorra geldi-geldia eta apal-apala; etchera ekarri zuten.

Albeitero edo mareshala deiturik sukarrez bazuen 39°. Bularra mihatu nahiz etzion pulmonia delakoa-ren ezagupiderik birlatu. Biharamunean berdin sukarrez; jaten ez, edaten bai zerbeit; asteazkenean gaude eta 40° sukarra; ustez eta barneko zikinkeri zerbeit izango zuela, purga bat ematen diote.

Behorra gero ta apalago; burua eta muturra lurraren ondoan, arras gaizkitua; ezagun zen azkenetara urbildua zela. Ortzegunean sukar berbera, baño eroriago, burua apal, behorra etzen igitzen ahal. Etsitu ginuen; biharamun goizeko lauetan il zen. Albeiteroak eyan, ukulluan bertan ideki nahi zion; baño nagusiak eramanean abereak ehorz-ten diren tokirat eta an ideki. Sabel barreneko

errai guztiak ongi; berdin ezker aldeko biria eta bai bihotza ere; baño, eskuineko aldea idiki zutelarik zornea eta ustelkeriaren usain tzarra ezin jasanez, etsi zuten. Biria gangrenatua zaukan. Bazaiteken pulmonia-ren ondorio-ko gangrena edo usteldura.

Nork daki igande goize-artan bildu balute eta asi penizilina ematen, ez othe zen sendatuko? Nagusiak dio; behor orrek uts bat bazuen; etzen gizontzen utsik egonik ere. Ots, zerbeit bazuela osasun osoa ez nabarmentzeko.

Erakaspen eder bat ikasi dugu. Albeiteroak abere iltzeaikin idiki behar dituztela, ikasteko.

Barka kontua irakurle! gertakizun au izan da emen egun oke-tako solas bide bakarra.

Urkijo jaunari; euskaldun shahar baten agurrik begiratuena;

Auritz.VII-49